

Umeen Herria

Herri ideala, amestutakoa, fantastikoa, zirrargarria, urrutira garamatzana gogoan. Atseginaren lekuari buruz jarraitzen dugu ikertzen Lezamako Umeen Kontseiluaren kurtso hasiera honetan, eta utopiatara joan gara azaroaren 22ko bileran. Bai: ez gaitzen errealitatean edo ezagutzen dugun horretan engaiatu eta ausart gaitzen gustokoen genukeen gure herria asmatzen. Goazela haratago.

Pentsatu al duzu inoiz nolakoa litzateke zeure herri ideal hori, irakurle? nolako klima izango luke? nolako etxeak? nolako zerbitzuak? garraiobideak? antolamendua? arauak? pertsonen bizimodua? kopurua? ...Jolastuko dugu Tomas Moro izatera? ...Nahiago Italo Calvino ala Ursula K Le Guin? Zergatik ez? Freskotasuna bilatzen ari gara... ideia ezberdinak.

Banaka, binaka edo hirunaka lan egin dugu eta mahai ezberdinetan kokatu gara, material guztiak erdiko mahaian zeudela. Bakoitzari orritxo batean pista hauek eman dizkiegu, nahi dutenari jarrai ziezaioten:

Umeen Herria asmatu. *Paradisua. Fantastikoa zein errealista. Margotuta edo mapak eginda, edo idatziz azalduz nolakoa izango zen.*

-Zer egongo da? ...eta zer utziko zenukete kanpoan?

-Herriaren egitura (mapa): plazak, kaleak, parkeak...

-Ingurugiroa: itsaso, erreka, mendi...

-Klima

-Herriaren antolakuntza

-Bizimodua

-Garraioak

-Zerbitzuak: tabernak, dendak...

-Biztanle kopurua

-Ikurrak: bandera, armarrria

-Herriko Arauak: Bai/Ez/Zeintzuk

-Pertsona nagusiak egongo dira ere...?

-...

Margozten eta mapak egiten jarri dira denak gustora asko. Asmatzen, imaginatzen. Jaleo piskat egon da rotulagailuak edo borragomak elkarri eskatu eta utziz, baina giro aparta izan dugu.

Herri horien aurkezpenak egin nahi genituen saio honetan ere baina buru belarri aritu dira eta ez digu eman astirik eta hurrengo egunean egingo ditugu. Jakintsuen Kontseiluaren hurrengo bilera larunbatez ospatuko dugu, estraineko aldez, abenduaren 14an.

Hemen ikus eta jaitsi ditzakezue bilera honetako argazkiak:

<https://flic.kr/s/aHsmJEBqzo>

